



**JENDAUURREKO KONTSULTA, IRUÑEKO UDALAREN ETA HAREN SEKTORE  
PUBLIKO INSTITUZIONALAREN ESPARRUAN EUSKARAREN ERABILPENA ETA  
SUSTAPENA ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA ONETSI AURREKOA**

**CONSULTA PÚBLICA PREVIA PARA LA APROBACIÓN DE LA ORDENANZA  
REGULADORA DE LA UTILIZACIÓN Y DEL FOMENTO DEL EUSKERA EN EL ÁMBITO  
DEL AYUNTAMIENTO DE PAMPLONA Y SU SECTOR PÚBLICO INSTITUCIONAL**

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133.1 artikuluan xedatutakoarekin bat –eta herritarrek arauak egiteko prozeduran parte hartzea ahalbidetzeko nahiz horretan ahalik eta kontsentsurik handiena lortzeko–, izenburuan aipatutako Ordenantzaren proiektua egin baino lehen, kontsulta publiko bat bideratzen da Udalaren webgunearen bitartez, non jaso nahi baita zer iritziz duten Ordenantzaren etorkizuneko onespenez uki ditzaketen subjektuek eta antolakunderik ordezkagarrienek puntu hauei buruz (ikusi, bestalde, bukaerako koadroa):

- a) Ekimenaren bitartez konpondu nahi diren arazoak.
- b) Arau hori onestea beharrezko eta egoki den.
- c) Aldaketaren helburuak.
- d) Izan litezkeen bestelako aukera erregulatzaile eta ez-erregulatzaileak.

Iritziak helarazi nahi dituzten herritarrek, antolakundeek eta elkarteek aukera dute hori egiteko 2018-11-07ra arte, goian aipatutako gai-sortari buruzko ekarpenak honako helbide elektroniko honetara bidalita:

**euskarazerbitzua@pamplona.es**

Urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133.3 artikuluan xedatutakoarekin bat, herritarren esku jartzen dira, Udalaren webgunean, iradokizunak edo alegazioak egiteko baliatzen ahal dituzten dokumentuok:

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 133.1. de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas –y con el objetivo de posibilitar la participación de la ciudadanía en el procedimiento de elaboración de normas y lograr el máximo consenso posible al respecto–, con carácter previo a la elaboración del proyecto de la Ordenanza citada en el título, se sustancia una consulta pública a través del portal web del Ayuntamiento, en la que se pretende recabar la opinión de las personas y de las organizaciones más representativas potencialmente afectadas por la futura aprobación de la ordenanza (ver también cuadro final):

- a) Los problemas que se pretenden solucionar con la iniciativa.
- b) La necesidad y oportunidad de su aprobación.
- c) Los objetivos de la modificación
- d) Las posibles soluciones alternativas regulatorias y no regulatorias.

La ciudadanía, organizaciones y asociaciones que así lo consideren pueden hacer llegar sus opiniones sobre los aspectos planteados en este cuestionario, hasta el día 07-11-2018, a través del siguiente buzón de correo electrónico:

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 133.3 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, se pone a disposición de la ciudadanía, en el portal web municipal, la documentación que puede ser útil para realizar cualquier sugerencia o alegación al respecto:



1.- Egun indarra duen Ordenantzaren ele biko testua, orain arte egindako aldaketa partzialen erreferentziak ere erantsita.

1.- Texto bilingüe de la Ordenanza actualmente vigente, incluyendo las referencias de la modificaciones parciales realizadas:

<http://www.pamplona.es/pdf/ordenanzaeuskera.pdf>.

### **Aurrekariak – Antecedentes**

*Iruñeko Udalaren esparruan euskararen erabilpena eta sustapena arautzen dituen Ordenantza 1997ko irailaren 12an onetsi zuen Iruñeko Udaleko Osoko Bilkurak, behin betiko (1997ko 122. NAO, urriaren 10ekoa).*

Ordur geroztik, lautan aldatu da Ordenantza:

- 1. aldaketa:

Osoko Bilkurak 2003ko uztailaren 31n behin betiko onetsia, eta 2003ko 112. NAO, irailaren 2koan, argitaratua.

- 2. aldaketa:

Osoko Bilkurak 2003ko abenduaren 29an behin betiko onetsia, eta 2004ko 10. NAO, urtarrilaren 23koan, argitaratua.

- 3. aldaketa:

Osoko Bilkurak 2005eko irailaren 15ean behin betiko onetsia, eta 2005eko 114. NAO, irailaren 23koan, argitaratua.

- 4. aldaketa:

Osoko Bilkurak hasiera batez 2012ko martxoaren 16an onetsia. 2012ko 131. NAO, uztailaren 5ekoan, argitaratu eta behin betiko onetsia.

*La Ordenanza reguladora de la utilización y del fomento del vascuence en el ámbito del Ayuntamiento de Pamplona* fue aprobada definitivamente por el Pleno del Ayuntamiento de Pamplona el 12 de septiembre de 1997 (BON 122, de 10/10/1997).

Posteriormente, ha sido modificada en cuatro ocasiones:

- 1ª modificación:

Aprobada definitivamente por el Pleno el 31 de julio de 2003 y publicada en BON nº 112 de 2 de septiembre.

- 2ª modificación:

Aprobada definitivamente por el Pleno el 29 de diciembre de 2003 y publicada en BON nº 10, de 23 de enero de 2004.

- 3ª modificación:

Aprobada definitivamente por el Pleno el 15 de septiembre de 2005 y publicada en BON nº 114 de 23 de septiembre.

- 4ª modificación:

Aprobada inicialmente por el Pleno el 16 de marzo de 2012 y publicada en BON nº 131, de 5 de julio (aprobación definitiva).

### **Konpondu nahi diren arazoak – Problemas que se pretenden solucionar**

Ordenantza berri bat onetsita, alde batetik 1997ko irailaren 12an onetsitako Euskararen Ordenantzaren jatorrizko espiritua berreskuratu nahi da, eta, bestetik, herritarren hizkuntza-eskubideak bermatu, udal-arauak egokituz gizartearen errealitatera eta indarrean den testuinguru juridiko berrira.

Con la aprobación de una nueva Ordenanza se pretende, por una parte, recuperar el espíritu original de la Ordenanza del Euskera aprobada definitivamente 12 de septiembre de 1997 y, por otra, garantizar los derechos lingüísticos de la ciudadanía, actualizando la normativa municipal a la realidad social y nuevo contexto jurídico vigente.



Hain zuzen, honako arazo hauek konpondu nahi dira:

1.- Ordenantzan ondoz ondo egindako aldaketek ez dute ahalbidetzen haren interpretazio argia. Adibide bat: egungo Ordenantzak bi zio-azalpen ditu, eta horrek zail bihurtzen du zehaztea zein den benetan Udalaren borondatea Ordenantzari dagokionez.

2.- Bestalde, hala hasierako testuan nola ondorengo aldaketetan, indargabetu edo aldatu diren lege-arauak aipatzen dira, eta horrek nahasmendua sortzen du Ordenantza aplikatzeko orduan.

3.-Horrez gain, Ordenantza onetsi eta gero ez da egokitu euskarari buruz onetsi edo berretsi diren arauetara: *Eskualdeetako eta Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna* –Espainiak 1992an sinatu eta 2001ean berretsia–, 18/1986 Foru Legea, abenduaren 15ekoa, Euskarari buruzkoa –ekainaren 27ko 9/2017 Foru Legeak Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legearen titulua eta artikulua batzuk aldatu ostean– eta euskara administrazio publikoetan erabiltzeko buruzko arauak (03/2017 Foru Dekretua, azaroaren 15ekoa, euskararen erabilera Nafarroako administrazio publikoetan, beren erakunde publikoetan eta menpeko dituzten zuzenbide publikoko entitateetan arautzen dituen).

4.- Indarreko Ordenantza ez da egokitzen onetsi zenetik hona gizartearen eta administrazioaren esparruetan izandako aldaketetara.

5.- Ordenantzan izan diren lau aldaketek segurtasun juridikoa zailtzen duten testu-argitasun eta -antolamendu arazoak eragin ditzakete.

6.- Indarreko ordenantzan adierazmolde desagokiak daude, hala hizkuntza inklusiboari dagokionez, gaztelaniaz, nola normalizazio terminologikoaz bezainbatean, euskaraz.

En concreto, estos son los problemas a los que se pretende dar una solución:

1.- Las sucesivas modificaciones de la ordenanza no permiten interpretarla con claridad. A modo de ejemplo, actualmente la Ordenanza cuenta con dos exposiciones de motivos que hacen que sea difícil de determinar cuál es la verdadera voluntad municipal acerca de la Ordenanza.

2.- Por otra parte, tanto en el texto inicial como en posteriores modificaciones se hace referencia a normativa legal que ha sido derogada o modificada, lo que provoca confusión a la hora de aplicar la Ordenanza.

3.- Además, la Ordenanza vigente no se ha adaptado a las normas sobre el euskera aprobadas o ratificadas con posterioridad a su aprobación: Carta Europea de las Lenguas Regionales o Minoritarias –ratificada por España en 2001, tras haberla firmado en 1992–, Ley Foral 18/1986, de 15 de diciembre, del Euskera –tras la modificación establecida por la Ley Foral 9/2017, por la que se modifica el título y el articulado de la Ley Foral 18/1986, de 15 de diciembre, del Vascuence– y normativa relativa al uso del euskera en las administraciones públicas (Decreto Foral 103/2017, de 15 de noviembre, por el que se regula el uso del euskera en las administraciones públicas de Navarra, sus organismos públicos y entidades de derecho público dependientes).

4.- La Ordenanza vigente no se adecuaba a los importantes cambios sociales, y administrativos registrados desde su aprobación hasta la actualidad.

5.- Las cuatro modificaciones que ha sufrido la ordenanza, pueden producir problemas de claridad y organización textuales que dificultan la seguridad jurídica.

6.- En la ordenanza vigente se aprecian expresiones inadecuadas tanto respecto al lenguaje inclusivo en castellano como a la normalización terminológica en euskera.



Azaldutako arazoak ikusita, Iruñeko Udalak ordenantza berri bat onestea proposatzen du, 1997an gai honi berari buruz onetsitakoa oinarri hartuta aipatutako arazoei konponbide tekniko-juridikoa emanen diona. Ordenantza berri bat onestea eta indarreko araudia indargabetzea tresna juridiko egokia da lege-testu berritua edukitzeko –non ahal den kontsentsurik handiena lortu nahi baita–, zeinak antzemandako arazo horiek konpondu, eta bidea emanen baitu haren interpretazioa eta aplikazioa argiro egiteko, betiere xede hartuta herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzea.

A la vista de los problemas expuestos, el Ayuntamiento de Pamplona propone la aprobación de una nueva ordenanza que, basándose en la primera ordenanza municipal sobre esta materia aprobada en 1997, ponga solución técnico jurídica a los problemas que se han descrito. La aprobación de una nueva ordenanza y derogación de la normativa vigente es el instrumento jurídico adecuado para contar con un texto legal renovado –para el que se pretende lograr el máximo consenso– que dé solución a los problemas detectados y que permita ser interpretado y aplicado con claridad, en aras a garantizar los derechos lingüísticos de la ciudadanía.

### **Helburuak – Objetivos**

- 1.- Finkatzea, ahalik eta kontsentsu handienarekin, herritarren hizkuntza-eskubideak eta Udaleko administrazioaren haiekiko betebeharrak argiro zehaztuko dituen Euskarari buruzko Ordenantza bat –halako eran non haiek ukitzen dituzten edo haietan interesa duten pertsonak eta entitateek orok argi ezagutu ahal izanen baitituzte beren hizkuntza-eskubideak bermatzeari dagozkion arauak–, zeinak, orobat, gaiari buruzko arau guztiak bateratuko dituen.
- 2.- Ordenantza batean eguneratzea eta Ordenantzaren edukia egokitzea gizartearen eta administrazioaren esparruetan gertatutako aldaketak, barne hartuta hizkuntza inklusiboa eranstea eta euskarazko terminologiaren eguneraketa.
- 3.- Ordenantza egokitzea aplikagarri zaion euskarari buruzko araubidera, xede hartuta herritarrei bermatzea araudi horretan aitortutako eskubideak.
- 4.- Ordenantzaren berrantolaketa logikoa eta testuala –orain hasieran onetsitako testua eta gerora egindako lau aldaketak hartzen baititu–.

- 1.- Fijación lo más consensuada posible de una Ordenanza del Euskera que defina con claridad los derechos lingüísticos de la ciudadanía y los deberes de la administración municipal para con ella –de manera que todas las personas y entidades concernidas o interesadas puedan conocer con claridad la normativa relativa a la garantía de sus derechos lingüísticos– y que recoja de manera unificada toda la normativa vigente en la materia.
- 2.- Actualización en una Ordenanza y adaptación del contenido a los cambios sociales y administrativos, incluyendo la introducción del criterio de lenguaje inclusivo y la actualización terminológica en euskera.
- 3.- Adaptación de la Ordenanza a la nueva normativa sobre el euskera que le resulta de aplicación, con el objeto de garantizar a la ciudadanía los derechos reconocidos en dicha normativa.
- 4.- Reordenación lógica y textual de la Ordenanza –que actualmente incluye tanto el texto aprobado inicialmente como las cuatro modificaciones realizadas con posterioridad.

**Posibles soluciones alternativas, regulatorias y no regulatorias  
Izan litezkeen bestelako aukera erregulatzaile eta ez-erregulatzaileak**



Egokia da gai hau Ordenantza bidez arautzea, pertsona-kopuru zehaztugabe bati zuzendua delako, gerora ere hainbatetan aplikagarria delako, eta Iruñeko esparruan egungo euskararen ordenantzak aitortzen dituen eskubideen aldaketa ordenantza baten bitartez egin behar delako.

Behin aztertuta *Iruñeko Udalaren esparruan euskararen erabilpena eta sustapena arautzen dituen Ordenantza*, Euskara Zerbitzuak arau horrek dituen arazoak hauteman ditu, bai eta erregulazio berri bat proposatzeko beharra eta egokitasuna ere, haren interpretazioa eta aplikazioa hobetzeko, dokumentu honetan adierazitakoarekin bat.

Gaur egun indarrean den ordenantzan lau aldaketa izan dira. Orain beste aldaketa bat egin beharko litzateke aipatutako arazoak konpontzeko. Bosgarren aldaketa bat eta zer artikulua dagoen indarrean interpretatzeko arazoak ekiditeko, Euskara Zerbitzuak egoki jotzen du Ordenantza berri bat onestea, 1997ko jatorrizko testua abiapuntu izanen duena eta indarrean dagoena indargabetuko duena ordenantza berria indarrean sartzearekin bat.

Ez da aurreikusten erregulatzailerik ez den ezein konponbiderik.

Urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133.3 artikuluan xedatutakoarekin bat, herritarren esku jartzen dira, Udalaren webgunean, iradokizunak edo alegazioak egiteko baliatzen ahal dituzten dokumentuok:

- 1.- Egun indarra duen Ordenantzaren ele biko testua, orain arte egindako aldaketa partzialen erreferentziak ere erantsita.
- 2.- Ordenantza berriaren proposamen-zirriborroa.

La cuestión que nos ocupa procede ser regulada por ordenanza porque tiene como destinatarias a una pluralidad indeterminada de personas, es susceptible de ulteriores y sucesivas aplicaciones, y una modificación de los derechos que reconoce la actual ordenanza del euskera en el ámbito de Pamplona/Iruña debe hacerse también mediante ordenanza.

Revisado el contenido de la actual y vigente *Ordenanza reguladora de la utilización y del fomento del vascuence en el ámbito del Ayuntamiento de Pamplona*, el Servicio de Euskera ha detectado los problemas que tiene dicha normativa así como la necesidad y oportunidad de proponer una nueva regulación para mejorar su interpretación y aplicación, tal y como ya se ha expuesto en este documento.

La ordenanza actualmente vigente ha tenido cuatro modificaciones. Ahora se necesitaría aprobar otra modificación para dar solución a los problemas descritos. Para evitar una quinta modificación que incremente los problemas a la hora de interpretar qué articulado está vigente, el Servicio de Euskera considera que es adecuado la aprobación de una nueva Ordenanza que partirá del texto original aprobado en 1997 y derogará la vigente cuando la nueva ordenanza entre en vigor.

No se contemplan soluciones no regulatorias.

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 133.3 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, se pone a disposición de la ciudadanía, en el portal web municipal, la documentación que puede ser útil para realizar cualquier sugerencia o alegación al respecto:

- 1.- Texto bilingüe de la Ordenanza actualmente vigente, incluyendo las referencias de la modificaciones parciales realizadas.
- 2.- Borrador de la propuesta de nueva Ordenanza